



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko maiatzaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren 2an, arratsko zortzian, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Anton, GOICOECHEA Inaki, IDIART Claudine, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENSA Elodie

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.  
**Bilkurako Idazkari izendatua izan da** : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2023ko apirilaren 28a  
Afitxatze eguna : 2023ko apirilaren 28a

### 4. ERABAKIA : JANTOKIKO BAZKARIEN PREZIOEN EMENDATZEA 2023KO IRAILAREN 1ETIK GOITI

*(7.1 nomenklatura)*

Ortzaizeko herriak du Ortzaizeko ikastetxeetako (eskola publikoa, Jon Donibane eskola eta Ortzaizeko Ikastola) ikasleentzako bazkariak eskaintzen dituen jantokia kudeatzeko eskumena.

Auzapezak oroitarazi du 2023ko martxoaren 1eko erabakiz, bazkari bakoitzaren prezioa 4,70 eurotan finkatu zela 2022-2023 ikasturterako. Zehaztu du, lehengaien eta energien prezioen ez ohiko emendatzearen ondorioz, SUHARI bazkari prestatzaileak bazkariaren prezioa 0,15 euroz (zergak bame) emendatzeko xedea duela 2023ko irailaren 1etik goiti, eta herriak prezioaren emendatze bera egin behar duela.

Auzapezak proposatu du bazkariaren prezioa 4,70 eurotik 4,85 euroa emendatzea, 2023ko irailaren 1etik goiti.

Herri Biltzarrek, Auzapezaren azaipenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ERABAKI DU**, Ortzaizeko jantokiko bazkariaren prezioa 4,85 eurotan finkatzea 2023ko irailaren 1etik goiti,
- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, gai horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

Kide kopurua : 15  
Hor zirenen kopurua : 13  
Balizko boz kopurua : 13  
ALDE : 14  
KONTRA : 0  
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez zurlatu erabakia.

ORTZAIZEN, 2023ko maiatzaren 2an  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/05/11an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/05/11an.